

Barrualde-Galdakao ESla Osakidetzako (Euskal Osasun Zerbitzua) erakunde sanitarioetako bat da, eta gure biztanleriaren osasun-beharrei erantzutea du eginkizun, kalitatezko zerbitzu sozialki arduratsua eskainiz. Horrela, gure gizartearen ongizateari eta osasunari lagundu nahi diogu, gure **misiotik** harago, **INGURUMEN-JASANGARRITASUNA** erdiesteko neurriak bultzatuz.

Osasun-jarduerak ingurunean sortzen duen **INPAKTUA** eta pertsonen bizi-kalitatea eta osasuna ingurumenarekin ezinbestean lotuta dagoela jakinda, Barrualde-Galdakako ESlan konpromisoa hartu dugu jarduketa-eremu bakoitzean **INGURUMENA ERRESPETATZEKO**. Horretarako, gure estrategian **(2022-2025 PE)** eta kudeaketan ingurumen-politika bat ezarri dugu, honako **PRINTZIPIO** hauetan oinarritzen dena:



2025/03/13

Zuzendari-gerentea

Gemma Fernández Peñalba

- ✓ *Ingurumen Kudeaketako Sistema eguneratuta mantentzea **EMAS** erregelamenduaren argitan —**UNE-ISO 14001:2015** Arauan oinarritua—, ingurumen-jarduera etengabe hobetzeko prozesu batekin bat eginez*
- ✓ *Gure erakundeari aplikagarri zaizkion **INDARREKO LEGERIA** eta **ARAUDIA** betetzea, baita gure erakundeak bere borondatez hartzen dituen ingurumen-eskakizunak ere*
- ✓ ***INGURUMEN-KULTURA SUSTATZEA**, gure pazienteen, profesionalen eta interes-taldeen sentsibilizazioa eta parte-hartzea sustatuz*
- ✓ *Materialen, baliabideen eta energiaren kontsumoa **OPTIMIZATZEA***
- ✓ *Kutsadura-mailak identifikatzea eta neurtzea, **gure KARBONO-AZTARNA neurtuz, klima-aldaketaren aurkako borrokaren alde eginez***
- ✓ *Gure jardueraren bitartez sortutako **HONDAKINEN** ekoizpena behar bezala minimizatzea eta kudeatzea*
- ✓ ***EROSKETA BERDEKO POLITIKAK** aplikatzea, energetikoki eraginkorrak diren produktu eta zerbitzuen erosketa bultzatuz, **Euskadiko Kontratazio Publiko Berdearen 2030erako Programarekin lerrotatuta** (Ospitale Berde eta Osasungarrien Sare Globala)*
- ✓ *Gure kontsumoak eta emisioak modu arinean **NEURTZEA eta MONITORIZATZEA**, desbideratzeen aurrean azkar eta eraginkortasunez jardun ahal izateko, eta, bide batez, monitorizatzea ezarritako ekintzen eraginkortasuna*
- ✓ ***Nazio Batuen 2030 Agenda Globalarekin** konprometituta*
- ✓ ***GARDENTASUNA SUSTATZEA**, gure erakundearen ingurumen-emitzen berri emanez*
- ✓ ***PARTEKATU** gure **ESPERIENTZIA** Osakidetzaren sareko gainerako erakundeekin eta beste osasun zentro eta enpresa batzuekin.*
- ✓ ***Eraginkortasun energetikoa eta klima-aldaketaren aurkako borroka sustatzea***